



OINARRIZKO JARDUERA

Gure bezeroek gure zerbitzuen berri izango dute sare sozialen bidez (Instagram eta Facebook), gure web orriaren bidez, etxeetan utziko ditugun liburuxken bidez eta herrietan jarriko ditugun kartelen bidez. Sare sozialekin gurekin harremanetan jar daitezke, informazio gehiago izateko edo gure lokalera joan eta bertan dauden zenbait liburuxka hartzeko edo dudak galdetzeko .

Gure enpresan lan egin nahi duten pertsonak eskura ditugun bitartekoen bidez iritsiko dira guregana, haiek gurekin harremanetan jarriko dira edo gure lokalera joango dira, eta han lan-elkarrizketa bat egingo diegu, eta guztiaren arabera erabakiko da kontratatatu ala ez.

Harremanetan jartzeko modua lehen esandakoa izango litzateke, haiek gurekin harremanetan jarriko liriateke, eskura dugun edozein bitartekoren bidez, eta guk, trukean, hitzordua emango genieke gure eskaintzak erakusteko, eta haiek hobeto deskribatuko digute zer behar duten. Haiek kontratatzen gaituzten edo ez erabakitzen dutenean, beraien lokalera joango gara, eta produktuak eta tokia erakutsiko digute, trukean guk bertan lan egingo duten langileak aurkeztuko dizkiegu.

Gure psikologoarekin hitzorduak egiteko, bezeroak gurekin harremanetan jarriko dira eta gure langilearen agenda begiratuko dugu, haren ordutegiaren eta aurretik lortutako hitzorduen arabera, berriro deituko diegu bezeroei, eta aske dituen ordutegiak erakutsiko dizkiegu.

